



Ekosistema

NEXT-CARE II. Topaketa: Bizitza-luzetasuneko Berrikuntza, Politikak, Tresnak eta Etorkizunak

2023ko AZAROAREN 28a

FICOBA - IRUN

Informazio gehiago:

Web: <https://www.next-care.eu/>

Posta elektronikoa: project@next-care.eu



Ekosistema



NEXT-CARE II. Topaketa: Bizitza-luzetasuneko Berrikuntza, Politikak, Tresnak eta Etorkizunak.

HELBURUAK:

- NEXT-CARE II topaketan (2023) NEXT-CARE proiektuak "Bizitza-luzetasuneko Berrikuntzaren Mugaz Gaindiko Euro-Poloa" bere bizitzako bigarren urtean lortutako **aurrerapenak eta emaitzak** aurkeztu eta zabalduko ditu. Proiektu hau Next Generation funtsen bitartez finantzatua dago, erakunde eta **Euskadi, Nafarroa, Akitania Berria eta Okzitania**ko eskualdeetako agenteekin lankidetzan.
- Hain zuzen ere, honako hauek erakusteko esparrua izango da ekitaldia: **politika soziosanitario konparatuei** buruz egindako azterketen emaitzak, **bizitza-luzetasunaren etorkizunei** buruzko azterketa bat eta bizitza-luzetasunaren erronkei erantzuten dieten praktika berritzaileak bultzatzeko **berrikuntza gida** bat.
- Gainera, bizitza-luzetasuneko politiken erronkei buruz erakundeetako arduradunekin eztabaidatzeko gune bat izango da, hainbat eskualde ikuspegitatik eta testuinguru instituzionaletatik aztertuta. Horretarako, **lunch-tailer** bat egingo da, bizitza-luzeraren etorkizunak aztertzeko, eta "ekintzarako agenda" bat diseinatuko da, bai erakunde publikoentzat, bai hirugarren sektoreko erakundeentzat, enpresentzat, unibertsitateentzat, familientzat eta bizitza-luzetasunari otutako profesionalentzat.



Ekosistema



NEXT-CARE II. Topaketa: Bizitza-luzetasuneko Berrikuntza, Politikak, Tresnak eta Etorkizunak

AGENDA

9.00-9.15	<p>Irekitze instituzionala Marian Olabarrieta, Gizarte Zerbitzuetako zuzendaria. Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politikak. Eusko Jaurlaritzza.</p>
9.15-9.30	<p>NEXT-CARE proiektuaren aurkezpena: Aurrerapenak eta emaitzak Javier Castro Spila, Ikertzaile nagusia– GIZALAB (Gizarte Politikako Berrikuntza Zentroa). NEXT-CARE proiektuaren koordinazio orokorra.</p>
9.30-10.00	<p>Hasierako hitzaldia: Bizitza-luzetasunaren etorkizuna soziala al da? Olivier Frezet. DomCare eta Service Polyvalent d'Aide et de Soins A Domicile de la Maison de Santé Protestante Bordeaux Bagatelle-ren zuzendaria .</p>
10.00-11.00	<p>Mahi-ingurua: Bizitza-luzetasunerako politikak: erronkak eta etorkizunak</p> <ul style="list-style-type: none"> • José Antonio de la Rica, Arreta Soziosanitarioko zuzendaria, Osasun Saila (Euskadi). • Inés Francés, Pertsonen Autonomia eta Garapenerako Nafarroako Agentziako zuzendari gerentea (Nafarroa). • Frederic Bousquet, Adinekoen eta Mendekotasuna duten Pertsonen Autonomia Saileko zuzendaria (Okzitania). • Olivier Frezet, Director DomCare et du Service Polyvalent d'Aide et de Soins A Domicile de la Maison de Santé Protestante Bordeaux Bagatelle-ren zuzendaria (Akitania Berria). • Joseba Zalakain (mahi-inguruaren koordinatzailea), SIIS – Dokumentazio eta Ikerketa Sozialeko Zentroko zuzendaria.
11.00-11.30	<i>Etenaldia - kafea</i>
11.30-12.00	<p>Mugaz Gaindiko Politika Sozio-sanitarioak Joseba Zalakain, SIIS – Dokumentazio eta Ikerketa Sozialeko Zentroko zuzendaria.</p>
12.00-12.30	<p>Bizitza-luzetasuneko berrikuntzaren gida Aitor Garmendia, PFK Attest – Bazkidea</p>
12.30-13.00	<p>2040: Bizitza-luzetasunaren etorkizuna Andere Goirigolzarri, SSI taldearen ikertzailea – Gizarte Zerbitzu Integratuak.</p>
13.00-14.45	<p>Bizitza-luzetasunaren etorkizuna diseinatzen: ekintza kolektiborako gida <i>Lunch – Tailer</i> Dinamika parte-hartzailea, ekintza kolektiborako gida bat egiteko, berrikuntza eta aldaketa sustatzeko erakunde publikoetan, hirugarren sektoreko erakundeetan, enpresetan, unibertsitateetan, familietan eta zainketen sektoreko profesionaletan.</p>
14.45-15.00	<p>Topaketaren itxiera Javier Castro-Spila, Ikertzaile Nagusia– GIZALAB (Gizarte Politikako Berrikuntza Zentroa). NEXT-CARE proiektuaren koordinazio orokorra.</p>



Irikitze Instituzionala

23/11/28. 9:00 h.



MARIAN OLABARRIETA

Gizarte Zerbitzuetako zuzendaria.
Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politikak.
Eusko Jaurlaritza.

Marian Olabarrietak ongiatorri instituzionala egingo dio ekitaldira, NEXT-CARE proiektuaren anfitrioi eta arduradun nagusi gisa.

IBILBIDE PROFESIONALA

2016tik, Eusko Jaurlaritzako Gizarte Zerbitzuetako zuzendaria da, baina aurretik hainbat kargu bete ditu, eta hauek zaintzaren eta bizitza-luzetasunaren arloko aditu bat izatera eraman dute. Hala nola, Amurrioko Udaleko zinegotzi gisa egin duen lanaren kasua, baita Arabako Foru Aldundian diputatu gisa egin dituen okupazioak ere, non Gizarte Ekintza, Kultura, Kirol, Berdintasun eta Lankidetzaren Batzordeetako kide izan den.

Filosofian eta Hezkuntza Zientzietan lizentziatua da (atal Pedagogikoa) Deustuko Unibertsitatean, eta Hezkuntza Orientazio eta Esku-hartze masterra du, ALBOR-COHS Taldea.

Hitzaldia NEXT-CARE proiektuaren aurkezpena: aurrerapenak eta emaitzak.

23/11/28. 9:15 h.



JAVIER CASTRO SPILA

Ikertzaile Nagusia– GIZALAB (Gizarte Politikako Berrikuntza Zentroa). NEXT-CARE proiektuaren koordinazio orokorra.

Ikertzaileak azken topaketatik lortutako aurrerapenak aurkeztuko ditu, eta jardunaldian zehar azalduko diren emaitza batzuk aurreratuko ditu, bereziki, goizaren amaieran egingo den tailerrean garatuko diren dinamikak.

IBILBIDE PROFESIONALA

Psikologoa da (UBA-UPV/EHU) eta Filosofia, Berrikuntza eta Gizartean doktorea (UPV/EHU). Egun, Gizalab-en (Gizarte Politikako Berrikuntza Zentroa) ikertzaile Nagusia da eta CEO Socinnova-n (Gizarte Berrikuntzako Aholkularien Sarea).

Gaur egun egiten duen lanaren barruan, NEXT CARE proiektuaren koordinatzaile nagusia da (Bizitza-luzetasuneko Berrikuntzaren Mugaz Gaindiko Euro-Poloa). Lan- eta ikerketa-ildoak: Lan eta ikerketa ildoak: gizarte-berrikuntza, gizarte-politiken berrikuntza, bizitza-luzetasunaren berrikuntza.

Inaugurazio-hitzaldia

Bizitza-luzetasunaren etorkizuna soziala al da?

23/11/28. 9:30 h.



OLIVIER FREZET

DomCare eta Service Polyvalent d'Aide et de Soins A Domicile de la Maison de Santé Protestante Bordeaux Bagatelle-ren zuzendaria.

Frezetek bizitza-luzetasunaren zainketa ezberdinei helduko die gizarte-politiken ikuspegitik, eta bizitza-luzetasuna arazo sozial bat dela adieraziko du, eta ez soilik osasun-arazo bat, alderdi eztabaidagarria baita, gaiak era askotara jorratzen direlako.

Olivier Frezet-entzat, benetako konponbideak eman ditzakeen gaia soziala izan behar da, ez soilik sanitarioa, eta horrek finantza-orekan islatzen ez dela ziurtatzen du, baliabide medikoek gizarte-politiketako neurriek baino finantzaketa handiagoa jasotzen baitute.

IBILBIDE PROFESIONALA

Frézet-ek 30 urte baino gehiagoko esperientzia du esparru mediku-sozial eta sanitarioan. Hasieta, gaixoentzako gizarte zerbitzuetako laguntzaile gisa, ospitale eta etxeetan, adinekoekin lan egiten duten establezimendu eta zerbitzuen zuzendaritzaz arduratu zen. Egun, asistentziarekin lotutako gaietan espezializatuta dago; izan ere, Santé Protestante Bordeaux bagatelle-ko etxeko laguntza eta zaintza zerbitzu balioaniztasuna zuzentzen du, baita DomCare (larrialdietarako gaueko taldea eta zaintzaileen sostengu taldea) kudeatu ere. Artikulu ugari idatzi ditu aldizkari espezializatuetan (gizarte-lana, laguntza, adinekoentzako laguntza eta abar), eta bi liburu idazten parte hartu du. Laster beste bat argitaratuko da: "Aidance Sentinels ABC".

Mahai-ingurua

Bizitza-luzetasunerako politikak: erronkak eta etorkizunak

23/11/28. 10:00 h.

Mahai-inguruan, hizlarien eremu bakoitzean koordinazio soziosanitarioko zereginak nola egiten diren aztertuko da, jardunbide egoki edo programen adibide batzuk, arazo komun batzuk eta koordinazio horretarako lagungarri izan daitezkeen irtenbide batzuk agerian jartzeko.

Horretarako, hizlariak bere lan arloetan, maila politiko batean, abian dauden ekintza nagusiak azalduko dituzte, eta baita zeintzuk diren detektatzen dituzten arazoak eta lan egitera bultzatzen duten palanka edo elementuak ere.

Helburua

Datuen koordinazioa, paziente/erabiltzaileek zerbitzuetara duten irisgarritasuna edo jarduera-programa garrantzitsuenei dagokienez egoera nolakoa den jakitea da helburu nagusia.

MODERATZAILEA



Joseba Zalakain

SIIS Zuzendaria – Dokumentazio eta
Ikerketa Sozialeko Zentroko
zuzendaria

IBILBIDE PROFESIONALA

Informazio Zientzietan lizentziatua Euskal Herriko Unibertsitatetik (1991) Gizarte Langintzako Ikasketa Aurreratuen Diploma (DEA) du, Nafarroako Unibertsitate Publikotik (2004).

1996. urtetik Eguía-Careaga Fundazioko SIISean egiten du lan eta zentro honetako zuzendaria da 2007tik. Hainbat ikerketetan parte hartu du arlo ezberdinei buruz: gizarte-zerbitzuak, pobrezia, gizarte-bazterketa, mendekotasuna, zahartzea, aniztasun funtzionala eta droga-mendekotasuna, besteak beste. Gainera, gizarte-zerbitzuen behatokiaren diseinuan eta kudeaketan ere parte hartu du SIISeko gainerako langileekin batera: Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuen Behatokia, Gizarte Zerbitzuen Euskal Behatokia eta Nafarroako Gobernuako Gizarte Eskubideen Departamentuko Gizarte Errealitatearen Behatokia kudeatzen. Beste hainbat proiektutan ere parte hartu izan du, hala nola, mendekotasunean arreta jartzeko politiken arloko mugaz gaindiko azterketa konparatua, Bordeleko Unibertsitatearekin, Eusko Ikaskuntzarekin eta Bartzelonako Diputazioarekin.

Mahai-ingurua

Bizitza-luzetasunerako politikak: erronkak eta etorkizunak

23/11/28. 10:00 h.

HIZLARIAK



JOSÉ ANTONIO DE LA RICA

Arreta Soziosanitarioko zuzendaria,
Osasun Saila (Euskadi).

IBILBIDE PROFESIONALA

Medikuntzan lizentziatua eta Psikiatrian espezialista, gaur egun Eusko Jaurlaritzako Osasun Saileko Arreta Soziosanitarioko zuzendaria da. 40 urte baino luzeagoa den bere ibilbide profesionalean zehar hainbat kudeaketa postu ezberdin konbinatu ditu: Bermeoko Ospitaleko zuzendaritza medikoa eta gerentzia, Osakidetzako asistentzia psikiatriko eta osasun mentaleko buruzagitza edo Euskadiko koordinatzaile soziosanitarioaren kargua, beste kliniko batzuekin batera, hala nola fakultatibo espezialista edo Bizkaiko Osasun Mentaleko Sareko Uribe Eskualdeko zerbitziburua.

Osasun Mentaleko Euskadiko Aholku Batzordeko idazkaria eta Osasun Sistema Nazionaleko Osasun Mentaleko Estrategiaren Batzorde Instituzionaleko kidea izan da. Hainbat unibertsitatetan irakasle izan da, eta ikertzaile gisa parte hartu izan du hainbat ikerketa proiektutan. Haren argitalpenak psikiatriari (patologia afektiboa eta nahasmendu mental larria) eta eremu soziosanitarioari buruzkoak dira batez ere..



INÉS FRANCÉS

Pertsonen Autonomia eta
Garapenerako Nafarroako Agentziako
zuzendari gerentea (Nafarroa).

IBILBIDE PROFESIONALA

Unizarretik Medikuntza eta Kirurgian lizentziatua eta Geriatrian eta Gerontologian espezialista. Halaber, aditua da Osasun Mentaleko Kudeaketa Klinikoa (Deustuko Unibertsitatea) eta Psikobiologia eta Neurozientzia Kognitiboko masterra (UAB) du. Josefina Arregui de Alsasusa klinikan hasi zuen bere ibilbidea (dementia eta nahasmendu psikogeriatriakoak dituzten pertsonen arreta emateko zentro espezializatua), arduradun kliniko gisa, eta, ondoren, zuzendari mediko gisa. Tuterako Osasun Barrutiko Psikogeriatriako unitatearen sortzailea eta arduraduna izan zen. 2015ean, Nafarroako Gobernuko Gizarte Eskubideen Departamentuko Pertsonen Autonomia eta Garapenerako Nafarroako Agentziaren zuzendari kudeatzaile izendatu zuten. Erakunde autonomo honek adinekoen, aniztasun funtzionala edo mendekotasuna duten eta familia eta adingabeen arloko eskumenak kudeatzen ditu.

Mahai-ingurua

Bizitza-luzetasunerako politikak: erronkak eta etorkizunak

23/11/28. 10:00 h.

HIZLARIAK



FREDERIC BOUSQUET

Adinekoen eta Mendekotasuna duten
Pertsonen Autonomia Saileko
zuzendaria (Okzitania).

IBILBIDE PROFESIONALA

Informazio eta Komunikazio Sistemen Arkitekturan ingeniaria da. Bere ibilbide profesionalaren zati handi bat adineko pertsonen eta mendeko pertsonen esparruan egin du Okzitanian, gaur egun Pirinioetako Goi Departamenduko Autonomiarako Departamentu Etxearen zuzendari gisa betetzen duen postura iritsi arte, 2018an hartutako kargua.

Lehenik, Pirinio Garaiko Departamentuko Gizarte Ekintzako Informazio Sistemaren arduradun funtzionala eta Pirinio Garaiko Departamentuko Informazio Sistemen zuzendariordea izan zen.

Hitzaldia

Mugaz Gaindiko Politika Sozio-sanitarioak

23/11/28. 11:30 h.



Joseba Zalakain SIIS Zuzendaria – Dokumentazio eta Ikerketa Sozialeko Zentroko zuzendaria

Aurkezpena NEXT-CARE proiektuaren NAEN euroeskualeko Politika Soziosanitarioen Azterketa Konparatuaren parte da. Proiektu horren bidez, mugaz gaindiko europar polo bat sustatu nahi da, NAEN euroeskualean hauskortasun eta mendekotasun egoeran dauden adinekoen zaintza-eredu berrietaranzko trantsizio-politika sortu eta dinamizatzeko.

Azterlanak lurralde bakoitzeko testuinguruaren eta politika soziosanitarioen azterketa konparatua egiten du, eta, zehazki, eremu honetan (Akitania Berrian, Euskadin eta Nafarroan) garatutako kasu espezifikoaren azterlanetan zentratzen da

Azterlanaren hasierako fasearen emaitzak azalduko dira. Fase horretan, bertan garatutako koordinazio soziosanitarioko ekimenak mapatuko dira. Ekimen horien helburua hurrengoa da: osasunaren eta gizarte-zerbitzuen eremuak elkartzeko eta bat egiteko gune bat sortzea, aldi berean osasun eta gizarte-arreta behar duten adineko pertsonen premiei behar bezala erantzuteko, koordinatua eta jarraitutasun-printzipioari egokitua

Akitania Berrian, Euskadin eta Nafarroan ezarritako jardunbide egokien 21 esperientzia identifikatu dira. Azterketako hiru lurraldeetan eremu soziosanitarioaren ezaugarri diren testuinguruak eta lanketak askotarikoak direnez, aurkezpenak eskualde bakoitzean hedatutako arreta eta koordinazio soziosanitarioko hiru ereduen testuinguru laburra ere eskainiko dute.

IBILBIDE PROFESIONALA

Informazio Zientzietan lizentziatua Euskal Herriko Unibertsitatetik (1991) Gizarte Langintzako Ikasketen Aurreratuen Diploma (DEA) du, Nafarroako Unibertsitate Publikotik (2004).

1996. urtetik Eguía-Careaga Fundazioko SIISean egiten du lan eta zentru honetako zuzendaria da 2007tik. Hainbat ikerketetan parte hartu du arlo ezberdinei buruz: gizarte-zerbitzuak, pobrezia, gizarte-bazterketa, mendekotasuna, zahartzea, aniztasun funtzionala eta droga-mendekotasuna, besteak beste. Gainera, gizarte-zerbitzuen behatokien diseinuan eta kudeaketan ere parte hartu du SIISeko gainerako langileekin batera: Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuen Behatokia, Gizarte Zerbitzuen Euskal Behatokia eta Nafarroako Gobernuko Gizarte Eskubideen Departamentuko Gizarte Errealitatearen Behatokia kudeatzen. Beste hainbat proiektutan ere parte hartu izan du, hala nola, mendekotasunean arreta jartzeko politiken arloko mugaz gaindiko azterketa konparatua, Bordeleko Unibertsitatearekin, Eusko Ikaskuntzarekin eta Bartzelonako Diputazioarekin.

Hitzaldia

Bizitza-luzetasuneko berrikuntzaren gida

23/11/28. 12:00 h.



AITOR GARMENDIA

Bazkidea – PFK Attest

Bizitza-luzetasuneko Berrikuntzaren Euro-Polo proiektua (NEXT CARE), Eusko Jaurlaritzako Gizarte Zerbitzuek gidatuta (Euskadi) eta Next Generation funtsekin finantzatuta, mugaz gaindiko ezagutza eta ikaskuntza espazio bat garatzea du helburu nagusitzat, zaintza ereduen eta bizitza-luzetasuneko politika publikoen berrikuntzarako.

Bizitza-luzetasunerako berrikuntzaren Gida NEXT-CARE proiektuaren produktu bat da eta berrikuntza prozesuak laburbiltzen ditu, bizitza-luzetasunaren berrikuntzako jardunbide egoki gisa. Gida honek, bizitza-luzetasunaren berrikuntzarako eredu bat eskaintzen du, etxeko, egoitza zentroetako eta Nafarroako, Akitania Berriko eta Okzitaniako komunitate zaintzako berrikuntza esperientzietan sortzen ari diren prozesu berritzaileak egituratzen eta sistematizatzen ditu. Bizitza-luzetasunerako berrikuntzaren Gidak hainbat kapitulu ditu: lehenengo kapituluan, biztanleriaren zahartzearen erronkaren oinarritzko testuingurua azaltzen da; bigarren kapituluan, gidaren arabera bizitza-luzetasuna eta berrikuntza zertan datzan; eta hirugarren kapituluan, erabilitako informazio iturriak argitzen dira. Horretaz gain, atal honetan Bizitza-luzetasuneko Berrikuntza Gida bat proposatzen da, 5 prozesu eta 17 jardueratan egituratua, Euskadin, Nafarroan, Akitania Berrian eta Okzitaniako jardunbide egokiak barne 17 jarduera horietan.

IBILBIDE PROFESIONALA

Kimika Zientzietan lizentziatua da (UPV-EHU) eta MsC Kenteko Unibertsitatean (UK). Era berean, MBA Executive bat (Deustuko Unibertsitatea) eta Advanced Management Proma bat (Enpresa Institutua) ditu. Gipuzkoako Foru Aldundiko Zaintza eta Gizarte Politiken Agendarekin lotutako hainbat proiektutan parte hartu du, Zaintza HerriLab: Tokiko Zaintza Ekosistemak delakoan: Gipuzkoako Foru Aldundia, Zaintza Scaling Lab: Gipuzkoako Foru Aldundia, KABIaren esparru estrategiko eta operatiboan (Adinekoak) eta ULIAZPIren esparru estrategiko eta operatiboan (Aniztasun funtzionala), besteak beste.

25 urtetik gorako esperientzia du politika publikoetan, gobernantzan, emaitzetara bideratutako aurrekontuetan (EBA), helburuen araberako zuzendaritza (HAZ), CMI-estrategia, bikaintasun-ereduak, antolaketa, ebaluazioa, kontu-ematea, eraldaketa digitala.

Hitzaldia

2040: Bizitza-luzetasunaren etorkizunak.

23/11/28. 12:30 h.



ANDERE GOIRIGOLZARRI

SSI taldearen ikertzailea – Gizarte Zerbitzu Integratuak

Helburua zahartzearen fenomenoak ongizate eta zaintza sistemetan duen eraginean zentratzea da, eta zehazki, haien eraldaketari buruz, sortzen diren beharrei eta eskaerei erantzuteko, bai kudeaketaren ikuspegitik, bai herritarren ikuspegitik. Komunitate testuinguru bateko zaintza eredu baterantz egin beharreko trantsizioaren funtsak aztertuko ditugu, Euskadin, Nafarroan, Akitania Berrian eta Okzitaniako eskualdeetan, 2040ari begira. Trantsizio horretan funtsezkoa da zainketen horniduran parte hartzen duten esfera edo eragileek betetzen dituzten funtzioak berrantolatzea eta optimizatzea. Zaintzari dagokionez, ahalik eta autonomia handiena sustatzeari buruz así gara, Eguneroko Bizitzako Jarduerak betetzeko beharrezkoak diren euskarriekin.

Komunitateko zaintza testuinguruari dagokionez, pertsonaren etxean edo ohiko bizi-ingurunean bizitzeaz ari gara, eta hau posible ez denean, ahalik eta antzekoen bizitzeaz. Erakundeetako pertsoneri arreta asistentziala ematean oinarritutako zaintza eredu bat ez bezala, arreta komunitario eta pertsonalizatua duen eredu bat da, non pertsonak aukeratu dezaketen non bizi, beraien komunitatean integratuta egonik. Ikerketa baten emaitzetan zentratuko gara, adituen ezagutza bitarteko, helburu zehatz bat izan duena: lehen aipatutako eskualdeetan erkidegoko zainketen errealitateari buruzko etorkizuneko agertoki bat marraztea 2040rako, eta baita nahi den agertokia lortzeko eragin beharko liratekeen palanka nagusiak identifikatzea ere.

IBILBIDE PROFESIONALA

Soziologian lizentziatua da Deustuko Unibertsitatean; Europako Integrazioan masterra du Deustuko Unibertsitatean; Gizarte Zerbitzuen Kudeaketan eta Berrikuntzan unibertsitate espezializazioa du Euskal Herriko Unibertsitatean. 2007tik lan profesionala egin du ikerketaren eta berrikuntzaren arloan, Innobasquen (Berrikuntzaren Euskal Agentzia) eta Europako Batzordeko Ikerketa eta Berrikuntzako Zuzendaritza Nagusian. 2019. urtearen amaieran, Gizarte Zerbitzu Integratuen Taldeko I+G+B Unitatean sartu zen, Home Care Lab S. Coop. eskualdeko eta nazioarteko proiektuak diseinatuz eta kudeatuz, batez ere zainketen eta bizitza-luzetasunaren eremuan. Gaur egun, Unitatearen arduraduna da.

Lunch - tailerra

Bizitza-luzetasuneko etorkizunak diseinatzen: Ekintza kolektiborako gida.

23/11/28. 13:00 h.

Lunch-tailerraren bitartez, parte-hartzaileei proposatuko zaizkien dinamiketan giro lasaia eta proaktiboa sortzen saiatzen da. Dinamika horiek talde txikietan egingo dira, helburua gida bat modu parte-hartzailean egin ahal izateko. Gida hau, erakunde publikoetan, hirugarren sektoreko erakundeetan, enpreetan, unibertsitateetan, familietan eta zainketen sektoreko profesioetan berrikuntza eta aldaketa sustatzeko ekintza kolektibo baterako gida izango da. Taldeak moderatzaileak gidatuko ditu, emaitza nabarmenak sortzeko moduan, eta ondoren emaitza hauek topaketaren amaieran azalduko dira.

MODERATZAILEA



Effectia Innovation Solutions

Aholkularitza

IBILBIDE PROFESIONALA

Aholkularitza estrategikoko enpresa, sektorean 20 urtetik gorako esperientzia duena I+G+B ekosistemaren zerbitzura, erakunde ezberdinei lagunduz: unibertsitateak, ikerketa-guneak, osasun-ikerketako institutuak eta I+G+Bn eta goi-mailako hezkuntzan eskumenak dituzten eta eragina izateko bokazioa duten administrazioak.

Topaketaren itxiera

23/11/28. 14:45 h.



JAVIER CASTRO SPILA

Ikertzaile Nagusia– GIZALAB (Gizarte Politikako Berrikuntza Zentroa). NEXT-CARE proiektuaren koordinazio orokorra.

NEXT-CARE proiektuaren ikertzaile nagusiak topaketa itxiko du, tailerraren emaitzak aurkeztuz eta proiektuaren hurrengo urratsak argituz.

IBILBIDE PROFESIONALA

Psikologoa da (UBA-UPV/EHU) eta Filosofia, Berrikuntza eta Gizartean doktorea (UPV/EHU). Egun, Gizalab-en (Gizarte Politikako Berrikuntza Zentroa) ikertzaile Nagusia da eta CEO Socinnova-n (Gizarte Berrikuntzako Aholkularien Sarea).

Gaur egun egiten duen lanaren barruan, NEXT CARE proiektuaren koordinatzaile nagusia da (Bizitza-luzetasuneko Berrikuntzaren Mugaz Gaindiko Euro-Poloa). Lan- eta ikerketa-ildoak: Lan eta ikerketa ildoak: gizarte-berrikuntza, gizarte-politiken berrikuntza, bizitza-luzetasunaren berrikuntza.